



Deusto

Deustu balio humanizatzaileen zerbitzura



2016

Deustu balio humanizatzaileen zerbitzura

Deustu zerbitzari

● Pastoralitza	1
● Teologia	3
● Erlijioen arteko eta kulturen arteko elkarrizketa	5
● Tokiko eliza	
● Gizartea zerbitzatu, Jesusen Lagundiko inguruko erakundeekin	9
● Adiskidetzeta Euskadin	11
● Euskal kultura	13
● Osasuna	15
● Emakume eta gizonen arteko berdintasuna	17
● Ingurumena eta jasagarritasuna	19
● Inklusioa	21
● Enplegua, gazteen langabezia eta ekintzailtza	23
● Gizarte justizia, elkartasuna eta pobreziaren kontrako borroka	25
● Giza eskubideak	27
● Migrazioak	29
● Nazioarteko lankidetzeta eta ekintza humanitarioa	31
● Etika	33
● Zahartzea eta adineko pertsonak	35
● Familia	37


Sarrera

Deustuko Unibertsitateak gizartearen zerbitzuan egon nahi du, unibertsitate alorrekoa den ekarpenaren bidez eta errealitatea ikuspegi kristautik aztertuz. Jesusen Lagundiaren erakundea izaki, fedea, justizia eta erlijioen eta kulturen arteko elkarrizketa jartzen ditu bere zereginaren muinean. Zerbitzatzeko eta konprometitzeko gogo sendo horrek gidatzen du bere ahalegina gizarteko errealitateak dakartzan erronkei modu sortzaile eta sakonean erantzuteko, hainbat arlo kontuan hartuta: giza eskubideak, adiskidetzeta, erlijioen eta kulturen arteko elkarrizketa, ingurumena, enplegarritasuna, zahartzea, familia...

Ikuspegi horretatik, unibertsitateak berezko dituen zereginak, hala nola jakintza sortu eta sakontzea, irakastea, gizartean eragitea, etab., erronka handi horientzako erantzunetan aurrera egitera bideratzen dira. Horren fruitu da unibertsitateak kritikoki parte hartzea gizarteko eztabaidetan, jakintza eta ikerketa gizartean aplikatzea eta ikasleen prestakuntza osoan esku hartzea gizartearen aldaketaren eragile izan daitezen.

Dokumentu honen bitartez, ageriko egin nahi ditugu 2014-2015 ikasturtean arlo horretan eman diren erantzun aipagarrienak.


José María Guibert
Deustuko Unibertsitateko errektorea
2016ko maiatza



Deustu zerbitzari:

Bi campusetako pastoraltzako taldeen misioa da *"Fides dimentsioa unibertsitateko elkartean sustatzea, animatzea eta ospatzea, beste dimentsioekin (utilitas, humanitas eta iustitia) harmonian, horretara bideratutako ekintzak diseinatzeko, burutzeko eta ebaluatzeko"*.

(«Documento Marco» nn.7-8, UNIJES 2010).
2014-2015ean, misio horren barruan ekintza hauek burutu dira:



Deustuko Unibertsitateko Pastoraltzaren, Probintziakoaren eta tokiko Elizakoaren arteko berezko lotura izan: UNIJES, MAG+S jesulagunen koordinaziozko sareetan parte hartu (Espainiako Probintziako Unibertsitateko Pastoraltza, Loiolako lurraldeko plataforma apostolikoa, Araba-Bizkaia eta Gipuzkoako tokiko plataforma apostolikoak); Apezpiku-konferentzia - Unibertsitateko Pastoraltza taldea.

Ebanjelioa Jesusekin bategite pertsonalerako espazioak sortu eta aukerak eskaini: justizia egiten duen federekin bat egin, esaterako, Pedro Barreto monsinorearen lekukotasunaren bidez (Peru); asteroko otoitzaldia; "Jainkoarekin tartetxo bat"; eguneroko Ebanjelioa banatu eta eguneko Ebanjelioa webean euskaraz argitaratu.

Ignaziotar espiritualtasuna abiaburu harturik, zentzua bilatzen eta sinesmenean barneratzen lagundu, baita gizaki eta kristau gisa hazten ere unibertsitateko elkartearen eta misioaren esparruan: irakasleen kristau erreferentziako taldeari lagundu; unibertsitateko ikasle taldeari lagundu Donostiako Loiola Zentroan; Gogo-jardunak eguneroko bizitzan; Loiolako eta Xabierreko erretiroetako gogo-jardunak; eta pertsonen lagundu.

pastoralitza

Espiritualtasuna sustatu, kulturen eta erlijioen arteko elkarriketaren hazia erne eta sustraitzeko lurrik emankorrena baita, bizitzaren zentzua bilatzeko tokirik egokiena izateaz gain: Donostiako campuseko laguntza koordinatu, Garate International programa, erlijio eta kulturen arteko elkarriketa, meditazioko lantegia, kontenplazioa, eneagramakoa, chikungekoa, adimen emozionalekoa.

Erruki adimentsua, arduratsua eta aktiboa sustatu, horixe baita elkartasun izena benetan merezi duen eta itxaropen iturri den erruki bakarra: "¿Es posible un liderazgo empresarial cristiano?" solasaldia, "Hegoaldera hurbiltzen" lantegia, 40 auzolandegi (Magis), etxerik eta paperik gabeko etorkinei prestakuntza emateko lantegia Donostian, boluntario lana Donostiako Pastoraltza Zerbitzuan.

Besteekin lan egin, lankidetzak leialeko espiritua goiburu harturik, eta Kongregazio Nagusien ildotik: Arrupe Elkarteen topaketa, taldeetan parte hartu (Euskal Kultur Mintegia; Korrika; Bake, Bizikidetzak eta Adiskidetzak Taldea; Pausoka Taldea, Piztu, Bertsobazkaria), Elkartea Apostolikoa, Etika Taldea, Balioen moduluko irakasgaiak.

Berariazko ekintza pastoral eta sakramentalak bete unibertsitateko elkartearen alde: ospakizunak, esaterako, eguneroko eta asteroko eukaristia (18 elkartekoak, 8 bestelakoak), ezkontzaren 34 ospakizun, adiskidetzak sakramentuaren ospakizunak eta 12 Pazkoa (Magis); prestakuntzako jarduerak (Jesus historikoari, Paulo Tarsokoari buruzko lantegiak... eta Van Goghi eta Erromanikoari buruzko solasaldiak); Loiolarako irteerak, Xabierraldia eta Urdazubirako irteera.

Deustu zerbitzari:

Teologia Fakultateak teologia ikastea sustatzen du oso ikuspegi desberdinetatik. Deustuko Unibertsitatean txertatuta dagoenez, unibertsitateko mundu konplexuaren parte da ikastegia. Horrek erraztu eta ahalbidetu egiten du kristau fedearen eta kulturaren arteko elkarriketa, erlijioen artekoa, etab. Hori dela eta, hainbat jarduera egiten dira elkar ulertze hori gogoan harturik, gizarte mailako hainbat testuingurutan.

Etorkizuneko apaizen eta Bilboko Elizbarrutiko pastoraltzako laikoaren prestakuntza teologikoa da Fakultatearen funtsezko zeregina; hala ere, hirugarren milurtekoaren hasieran, geletako irakaskuntzako lanaz gain, lineako irakaskuntzak ere garrantzi handia du. Teknologia berriei esker, erraztasunak ematen zaizkie lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetako erlijioako irakasle izateko prestakuntzan parte hartzeko, gure egoitzatik hurbil bizi direnei ez ezik, urrun daudenei ere, bestela prestatzeko aukerarik ez bailukete izango. Deustuk irakaskuntzako eredu hori ezartzeko egin duen ahalegina ikaragarria da: ikasleen ehuneko handi batek jo dezake ezagutza teologikoetara baliabide berritzaile horien bidez; izan ere, Fakultatea aitzindaria da tresna berritzaile horiek erabiltzen.

Azpiarratzekoa da Fakultateko irakasleen lankidetzak Giza Balioei buruzko Prestakuntzako moduluko irakasgaietan. Hainbat irakasgai eskaintzen dira gradu guztietako ikasleentzat, curriculumaren barruan: “Gizartean parte hartzea eta balioak”, “Biblia: gizateriaren memoria”, “Ekialdea eta Mendebaldea eta erlijio tradizio nagusiak” edo “Jainkoaren esperientzia”, besteak beste.

Zientziari eta Erlijioari buruzko hitzaldi zikloak eta mintegiak osatzen dute Teologia-ren zabalkundeko beste atal bat eta DeustoForumekin batera eskaintzen da. Aurten, “Neurociencia y espiritualidad” hitzaldia eskaini du Ramón Nogués irakasleak.

teologia

Ikerketari dagokionez, 2012tik 2015era bitartean, FIUC erakundeak babestutako nazioarteko ikerketa proiektu batean parte hartu zuen Manuel Reus Canals irakasleak: “Vatikanoa II 2012-2015. Gertakari historikoa eta orainaldirako erronka. Ebanjelioa eta kulturak”. J.M. de Velasco irakasleak zuzendutako beste ikerketa proiektu batean ere hartu zuen parte Teologia Fakultateak: “30 años de VIH-SIDA. Balance y nuevas perspectivas de prevención”, Javier de la Torre arg., Comillaseko Eliz Unibertsitatea, 2013. 2015eko Deusto – Banco Santander sariaren accesita irabazi zuen lan horrek eta Promotio Iustitiae delakoan aipatuta ageri da, “La promoción de la justicia en las universidades de la Compañía” dokumentuan.

Bestalde, Carmen Bernabé eta Carlos Gil irakasleek oso gogoan dute fedea eta justizia, “Hasierako kristautasuna” ikertalde eta ikerrildoan, bai iturriak ikertzean eta bai ikerketaren gizarte eta eliza mailako garrantzia erakustean. Arlo horretan, 2014-2015 ikasturteko argitalpenen artean hau aipatu behar da: Aguirre, R., - Bernabé, C., - Gil, C., Guías de lectura de los evangelios de Marcos, Mateo y Lucas (Estella: EVD 2014).



Deustu zerbitzari:



Erligio eta kultura ugaritasuna da gaur egungo gizartearen ezaugarrietako bat eta Jesusen Lagundiaren misioan eragin handia du arlo horrek. Horren erakusgarri, Deustuk erlijioen eta kulturen arteko elkarrizketa bultzatzen du eta prestakuntza akademikoa eskaintzen du unibertsitate mailan.

“Ekialdea eta Mendebaldea eta haien erlijio tradizio nagusiak” irakasgaiari esker, kultura esparru desberdinetako gizateriaren gertakari eta tradizio erlijiosoetara era sistematikoan hurbiltzeko modua dago, gero eta globalizatuagoa eta sekularizatuagoa den gizarte honetan. “Tradizio soziokulturalak eta erlijioen arteko elkarrizketa” irakasgaiak ere ideia berdinak ditu oinarri, baina lehen hezkuntzako irakasleen profilera egokituta, eskolako hezkuntza esparruko erronka eta aukerei bereziki erantzuteko. “Tradizio erlijioso handiak” irakasgaiak, bere aldetik, helduen mundura hurbiltzen du erlijio gertaera, bizitzan beste ikaskuntza batzuetan ari diren helduen mundura, hain zuzen.

Teologia Fakultateko Erligio Zientzietako Espezializazio Diploman, erlijioen arteko elkarrizketa, erlijioen teologia eta Bibliak mendebaldeko kulturen izan duen eragina jasotzen dira.

erlijioen eta kulturen arteko elkarrizketa

Lankidetzak ere izan dira Teologia Fakultateko irakasleen eta Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko ikertzaileen artean. Diversidad religiosa, integración social y acomodados. Un análisis desde la realidad local en el caso vasco liburua dugu horren erakusgarri. Horrez gain, Euskal Herriko X. Soziologia eta Zientzia Politikoaren Kongresuan, bi komunikazio aurkeztu ziren erlijio aniztasunaren eta tokiko kulturen arteko harremanaz: “La gestión de la diversidad religiosa desde lo local. Religiones minoritarias y administración pública en el País Vasco: algunos problemas y retos” eta “Gutxiengo erlijiosoak eta hedabideak”.

Azkenik, Teologia Fakultatea ESITIS (European Society for Intercultural Theology and Interreligious Studies) elkartean sartu da. Elkartearen helburua da Teologia, Erligio Zientzia, Antropologia eta Filosofiako kultura eta erlijioen esparruko ikerketa eta unibertsitate mailako irakaskuntza sustatzea. Fakultateak erakundearen kudeaketan lan egiten du aktiboki, Amsterdam, Dublin, Birmingham, Lublin, Münster, Salzburgo, Nijmegen eta beste unibertsitate batzuetako irakasleekin batera. ESITISen bi urterik behingo bosgarren biltzarra Lublinen izan zen, 2015eko apirilaren 15etik 18ra, izenburu honekin: “Shifting Locations – Reshaping Methods. How New Fields of Research in Intercultural Theology and Interreligious Studies Elicit Methodological Extension”. Helburua zen erlijio arteko ikaskuntzetara eta kultura arteko teologiara bideratutako metodologiak eskaintzea: diskurtsoaren analisia, analisi postkoloniala, erlijioaren soziologia, etab. “A study of religious pluralism: experience-based methodological contributions” komunikazioa aurkeztu zuten Deustuko Lidia Rodríguez eta Luzio Uriarte irakasleek, baita bi lankidetzak ere, Peeters eta Rodopi argitaletxeetan argitaratutako direnak.

¹ MORONDO TARAMUNDI, D. – RUIZ VIEYTES, E. J., Diversidad religiosa, integración social y acomodados. Un análisis desde la realidad local en el caso vasco, Bruselas, Peter Lang 2014.

Deustu zerbitzari:



Deustuko Unibertsitatea, bereziki Teologia Fakultatea, beti aritu da elkarlanean Bizkaiko Elizarekin apaizgaiak, erlijiosoak, laikoak eta Bizkaiko elizbarrutiko pastoraltzako eragileak prestatzen. Prestakuntza horrek oso balioespen positiboa izan du historian zehar, unibertsitatearen kalitateagatik, irakasleen dedikazioagatik eta gure gizartean eta Bizkaiko elizbarrutian fedearen eta kulturaren arteko elkarriketan eta fedea eta justizia sustatzen egin dituen ekarpenengatik.

2014-2015 ikasturtean zehar, Unibertsitateko zuzendaritzak jakinarazi dio Bilboko gotzainari gertu dagoela Bilboko elizbarrutiarekin lankidetzazabalagoa izateko eta elizbarrutiak Fakultatean presentzia handiagoa izateko. Eta berritu egin du Bilboko elizbarrutiarekin zuen lankidetzaz hitzarmena, Teologiako ikasketak egin aurreko Biurteko Filosofikoa elizbarrutiko egoitzan emateko.

tokiko eliza

Teologiako Batxiler tituluak, unibertsitateko graduako titulu ofizialaren parekoak, apaizgorako prestakuntza teologikoa eskaintzen die apaizgaiei eta diakongo-gaiei, baita elizbarrutian pastoraltzako zereginetan ari diren laikoei ere. Gaitasun teologikoa ematen die Erlijioa ikastetxeetan irakasten duten irakasleei, igandeetako apaizik gabeko ospakizunetako animatzaileei, elizbarrutiko talde biblikoetako animatzaileei eta unibertsitate mailako prestakuntza teologikoa ematen die kristau fedean sakondu nahi duten guztiei, baita etengabeko prestakuntzakoa ere apaiz, erlijioso eta laikoei. Horretarako, ikasketa planeko zenbait irakasgai aukeratu ditzakete eta irakasleek banakako tutoretzaren bidez egiten diete jarraipena. Teologiako Lizentziatura unibertsitate master titulu ofizialaren baliokidea da eta prestakuntza teologiko espezializatua eskaintzen du fedearen eta kulturaren arteko eta erlijioen arteko elkarriketaren inguruan. Graduondoko horretan hartzen dute parte gure elizbarrutiko apaizek ez ezik, elizbarrutitik kanpokoak izan arren, bertoko elizaren zerbitzura daudenek ere.

Hainbat hitzaldi eta jardunaldi antolatu dira elizbarrutiko erakunde eta elkartee-kin batera, fedearen eta zientziaren arteko elkarriketaren inguruan.

Bilboko elizbarrutiak eta Deustuko Eliz Unibertsitateak elkarrekin sustatu dute “Loiolako San Ignazio eta Berriotxoako San Balendin” Erlijio Zientzien Goi Institutua. Hiru ikasturtetan (antzinako Diplomatura), Erlijio Zientzietako Batxilergoa eskaintzen du zentroak (180 ECTS) eta prestakuntza eskaintzen die laiko eta erlijiosoei, tokiko elizaren zerbitzuan hainbat eginkizunetan trebatzeko. Eskolan Erlijioa irakasteko trebakuntza ere ematen du (Lehen Hezkuntzako, eta Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko Eskolako Erlijio Irakas-kuntzarako Prestakuntza), Bizkaiko elizbarrutiko ikastetxe publikoei eta pribatuei begira.

Lineako modalitateari esker (blended-learning), prestakuntza teologikoa eskaini zaie prestakuntza teologiko eta pastoraleko zentroetara joan ezina duten pertsona guztiei.

Deustu zerbitzari:

Jesusen Lagundiaren erakundeek arteko elkarlanak gizartearen zerbitzura aritzea du helburu, eragiteko ekintzen bidez. Hori lortzeko lehenengo urratsa da pertsonen prestakuntza eskaintzea, erakundearen misioa elkarrekin aurrera eramateko. 2014-2015 ikasturtean, Deustuk Loiolako Lurralde Plataforma Apostolikoaren prestakuntza planetan hartu du parte, bai Izaera eta Misioari lotutako heziketan eta bai Ignaziotar Lidergoari lotutako ikastaroan. Unibertsitateko langileek prestakuntza jaso dute eta Prestakuntza Batzordean hizlari eta laguntzaile aritu dira. Baterako prestakuntza hori gakoa da sektore arteko proiektuak bultzatzeko, zerbitzuaren diziplina askotako ikuspegian oinarrituta. Jesusen Lagundiko erakundeekin (ALBOAN, Loiola Zentroak, Ellacuria Zentroa, ikastetxeak eta bestelakoak) elkarlanean aritzearen jomuga eta oinarriak hobeto ulertzen dira guztiok partekatzen ditugun balioak sozializatuta eta barneratuta, obra eta erakunde guztiek, elkarrekin, misio bakarra baitugu. Bide horretatik, Tokiko Plataforma Apostolikoan (Gipuzkoakoa eta Araba-Bizkaikoa) bi topaketa egin dira, 2015-2016 ikasturte honetan argitaratu den dokumentu bat prestatzeko: "Elkartasun krisia, krisiaren aurrean elkartasuna". Oinarri horretatik abiatuta, beste hainbat lankidetzak bideratu dira.


Lehenengo, hezkuntzari dagokionez, Ikasi eta Zerbitzatu irakasgaietan, Jesusen Lagundiko beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzen gara. Hauek dira erakundeok: ALBOAN (bi campusetan), nazioarteko garapena eta lankidetzak sustatzea helburu duen Jesusen Lagundiko gobernu kanpoko erakundea; Loiolaetxea (Donostiako campusean), preso dauden pertsonen harrera egiteko eta gizarteratzen laguntzeko egitasmoa; eta Ellacuria Zentroa (Bilboko campusean), etorkinei harrera egiteko zentroa. Giza Heziketa Balioetan moduluko beste irakasgai batzuetan ere saioak antolatzen dira. Gainera, titulazio batzuetan curriculum barruko praktikak egin daitezke erakunde horietan.

Bigarren, ikastetxeekin eta ikastetxeetako pastoraliza arloekin dugun lankidetzari esker, azpimarratzekoak dira Deusto Campusek proposatzen dituen ekintzak, bereziki fedearen eta elkartasunaren esparruan. Horien artean daude auzolandegiak, eta lankidetzak egonaldiak Indian, Kolonbian, Perun eta beste hainbat herrialdetan. 2014-2015 ikasturtean, ikasleei ez ezik unibertsitateko langileei ere ireki zitzaizkien eskaintza hori.

gizartearen zerbitzura, Jesusen Lagundiko inguruko erakundeekin

Hirugarren, Etika Aplikatuko Zentroak, ALBOANekin, Giza Eskubideen Institutuarekin eta Ellacuria Fundazioarekin elkarlanean, gizarte osoarentzako mintegiak eskaini ditu, hainbat gai interesgarriren inguruan: zergak, mineralak ateratzeko kanpaina, ekologia, espiritualtasuna... Eta Herritartasun Eskolaren programa prestatu du, 2015-2016 ikasturtean abian jarri dena.

Amaitzeko, beste zenbait proiekturen artean, aipatzekoa da Comparte Proiektuaren sendotza. Proiektu horretan, Unibertsitateak, ALBOANen eskutik, eta bereziki Deusto Business Schoolen parte hartzearekin, ikerketa eta ekintzako proiektu batean hartzen du parte, Jesusen Lagundiko beste unibertsitate batzuekin, gizarte zentroekin eta gobernu kanpoko erakundeekin, garapen barneratzaile, jasangarri eta egingarriaren ezaugarri nagusiak identifikatzeko, Hego Amerikako hainbat herrialdetako kafe ekoizpenean. DBSko zenbait irakasle eta ikasle Kolonbian eta Mexikon izan dira, eta horrek ikerketarako ere ikuspegi berriak ekarri ditu.



Deustu zerbitzari:

Deustuk adiskidetzearen alde lan egin du, nagusiki Etika Aplikatuko Zentroaren (EAZ) eta Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuaren (PAGEZ) bidez. Hurrengo lerroetan, bide horretan aurrera eramandako zenbait jarduera azalduko ditugu, zerrenda osoa ez bada ere.

Etika Aplikatuko Zentroko bi kidek Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak bideratutako hiru proiektutan hartu zuten parte aurreko legegintzaldian: “Glencree ekimena”, alde bateko eta besteko terrorismoaren eta Estatuko segurtasun indarrek egindako giza eskubideen urraketen biktimen topaketak; “Topaketa leheneratzaileak” ETAko biktimen eta biktima-eragileen artean; eta “Biktima hezitzaileak” edo alde bateko eta besteko terrorismoaren biktimek eskoletan emandako lekukotasun hezitzailea. Lankidetzak hori 2014ko urtarilean amaitu zen.

2015. urtean, gizarte komunikazioko taldeko ikertzaile batzuek, Etika Aplikatuko Zentroko pertsona batekin, ‘Ahotsak’ proiektuan hartu dute parte, unibertsitateek Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako Planarekin duten lankidetzak esparruaren baitan. Proiektu horretan, ikus-entzunezko materiala aukeratu eta gida didaktikoak prestatu dituzte unibertsitateetan indarkeriari eta adiskidetzeari buruz gogoeta egiteko.

Lankidetzak esparru horretan bertan, Zuzenbide Fakultateko irakasle batzuek justizia trantsizionaleko neurriei buruzko txosten bat prestatzen lagundu dute.

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak bi txosten egin ditu Eusko Jaurlaritzarentzat, ETAK mehatxatutako pertsonen inguruan.

adiskidetzeara Euskadin

Azken urteetan, Etika Aplikatuko Zentroak bi ikerketa proiektu egin ditu gai horren inguruan: “Memoria, ética y justicia: la extorsión y la violencia de ETA contra empresarios, directivos y profesionales” eta “Understanding political violence through history education. Cases studies in Colombia, the United States and the Basque Country”.

Deustuko Unibertsitateko kide batzuek nazioarteko adiskidetze prozesuen inguruko ekimenetan ere hartu dute parte, Kolonbian (bake akordioaren dinamika inguruan) eta Brasilen (militarren estatu kolpetik demokraziarako trantsizio garaiari lotutako amnistia legeak berrikustearen inguruan). Bi esperientzia horietan zeresana du, zalantzarik gabe, Euskal Herriko adiskidetze prozesuak ere, alderapenak egiteko eta elkarrengandik ikasteko.

Jarduera horiek guztiak hainbat bide erabiliz zabaldu dira: iritzi artikulua prentsa idatzian, prentsan eta irratian agertzea, hitzaldiak, artikulua aldizkari zientifikoetan, eta kapituluak taldeko liburuetan.



Deustu zerbitzari:

Deustuko Unibertsitateko Estatutu Orokorretan, unibertsitatearen helburuetako bat “Euskal Herriko berezko kulturaren sustapena egitea” dela zehazten da, eta Deusto 2018 Plan Estrategikoak “nazioartean onespina duen eta euskal gizartearekin bat egiten duen irakas-ikas eredua” sustatu nahi du.

2014-2015ean, irakaskuntzaren arloan, Euskal Filologia graduaz gainera, Euskal Hizkuntza eta Kultura Gradua jarri da abian, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko Hizkuntza Modernoen eta Euskal Ikaskuntzen Sailak sustatuta.

Euskal Gaien Institutuak (EGI) euskal kulturari lotuta dauden jarduera ugari zuzentzen ditu. Prestakuntzaren eremuan, EGItik Bizkaiko Kultur Ataria sustatu da eta, horren barruan, Zuzenbide eta Geografiako ikastaro baten diseinua. Halaber, “Gabriel Aresti Ondarea Zikloa” antolatuta da; horren barruan, prestakuntza antolatu zen, bai eta kontzertu bat (Rafa Rueda) eta turismo-ibilbide bat ere DeustoBiderekin, DeustoForumeekin, Zenbat Gara rekin eta Gabriel Aresti Euskaltegiarekin lankidetzan. Ikerketaren eremuan, Deustuko Unibertsitatearen barruan euskal kulturari lagundu diezaioketen fokuak identifikatzeko lan egin da. Horretarako, honako ikerketa hau egin da: “40 urte euskal gaien inguruan Deustuko Unibertsitatean: iragana, oraina eta etorkizuna” (ikertzaile nagusia: Nerea Mujika); bertan, euskal gaien buruzko DUko ikerketa-mapa jasotzen da (2005-2013), 32 elkarrizketa sakon eta “Euskal Gaiak Deustuko Unibertsitatean: iragana, oraina eta etorkizuna” dokumentala. Beste proiektu batzuk: “Ondare Bizia: euskal emigrazioa eta itzulera”, online ataria: www.ondarebizia.deusto.es. IN: Pedro Oiarzabal. “Euskarazko komunikabideen kontsumoa interneten: lotuneak, migrazioak eta etendurak” (Euskarazko Komunikabideen Behategia), Hekimen-ekin, EHUrekin, Murekin lankidetzan. Ikertzailea: Xabier Landabidea. “Euskal hiztun berriak”. IN: Estibaliz Amorrortu.

euskal kultura



Zenbait ekimen eraman dira aurrera euskal kulturaren eremuak unibertsitatean ikusarazteko. Besteak beste, “Jon Bilbao aro digitalean: euskal kultura babesteko eta transmititzeko erronkak” jardunaldia antolatu da, erakusketa batekin eta euskal literaturaren eta soziolinguistikaren inguruko hainbat hitzaldi eta mahai-ingururekin batera (Danele Sarriugarte eta Garazi Arrula).

Nabarmentzekoa da, halaber, Euskal Herriko beste unibertsitateekin partekatutako foroak, besteak beste, Ikergazte; Nazioarteko Ikerketa Euskaraz, zehazki, Batzorde Zientifikoa, Batzorde Dinamizatzailean eta mahai-inguruak. Azkenetan Deustuko hainbat diziplinako 10 ikertzaile gaztek hartu dute parte. Aipatzekoa da, bestalde, Udako Euskal Unibertsitatearekin (UEU) unibertsitatean euskara sustatzen laguntzeko eginiko lankidetzak-hitzarmena.

Hizkuntz eta kultur prestakuntzaren eremuan, Euskal Irakaslegoak hizkuntz gaikuntzako ikastaroak eskaintzen ditu, eta beste hainbat jarduera sustatzen ditu, euskararen erabilera sustatzeko unibertsitateko elkartean, besteak beste, Deusto Kantari, Berbalaguna edo Zinema Euskaraz. Deusto Campusek zenbait jarduera sustatzen ditu, besteak beste, Euskal Herriaren eta bere kulturaren aurkezpena atzerriko ikasleei (Garate Internationalen barruan), antzerkia euskaraz, mendi taldea, bertso afaria, euskal musikako kontzertuak edo Euskararen Nazioarteko Eguna.

Deustu zerbitzari:

Deustuko Unibertsitateak, bere misioa kontuan hartuta, uste du osasuna gai estrate-
gikoa dela, bai irakaskuntzako eta ikerketako jardueran, bai gizarteari zerbitzu
emateko eta unibertsitateko elkartearen zaintza ulertzeko moduan.

Irakaskuntzari dagokionez, gure unibertsitateak profesionalak prestatzen ditu
osasun-zientzien arloan, zehazki, psikologiaren arloan, eta, gaur egun, gradu bat,
hiru unibertsitate-master, bost titulu propio eta doktorego bat ditu osasun-zientzietan;
horien bidez, goi-mailako profesionalak prestatzen dira, osasun-arloko lanbide-jar-
duerarako. Halaber, prestakuntza etengabea ere eskaintzen da, osasun-lanbideen
Prestakuntza Jarraiko Euskal Kontseiluak onetsita, bai eta hitzaldiak, biltzarrak eta
mintegiak ere. Graduondoko programak ere badaude, esaterako, Osasun Zerbitzuen
Kudeaketako Masterra, DBSn. Gainera, beste ezagutza-adar bati lotuta bada ere,
unibertsitateak Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua eskaintzen du,
osasuneko espezializazio-ildoarekin.

Bestalde, unibertsitateak zenbait ikertalde ditu, psikologiako, hezkuntzako eta
ingeniaritzako arloetan, eta, horien artean honako hauek daude: Ebaluazioa, Klinika
eta Osasuna, Deusto Stress Research, Nahasmendu Mediko Larrien Neuropsikolo-
gia, e-Bizitza, Neuro-e-motion... Osasunaren hainbat problematikatan sakontzen
dute, bai eta haien sustapenean eta garapenean ere, gizartearen beharrei erantzun-
teko aukera ematen duen ezagutza aurrera egiteko eta pertsona ororen bizi-kalita-
tea eta ongizatea hobetzeko. Taldeek produktibitate-maila altua dute eta gehienek
Eusko Jaurlaritzaren aitorpena dute. Ikasturte honetan aurreikusita dago graduko
ikasle guztiei osasunari eta ongizateari buruzko bigarren galde-sorta egitea.

Osasuna

Psikologiako ikerketa eta prestakuntza espezializatuaren zati handi bat Eusko
Jaurlaritzak aitortutako osasun-zentro baten bidez antolatzen da: Deusto Psych,
Psikologiako eta Osasuneko Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza, zeinak arreta
psikologikoa eskaintzen dion unibertsitateko elkarte guztiari.

Deustuko Unibertsitatea, 2013tik, Unibertsitate Osasungarrien Espainiako Sarean
dago, eta Deustu Osasungarria izenez ezagutzen den proiektua garatu du;
proiektuaren helburua da unibertsitateko elkartearen osasuna, ongizatea eta
erabateko garapena sustatuko duen ingurunea bultzatzea, bai eta guztion
osasuna prebenitzea eta zaintzea ere. Ahalegin horiek Innobasqueren aintzates-
pena jaso dute, 2014an Gosasun zigilua jaso zenean. Azken ikasturtean, 20
kanpaina egin dira, hala nola DUren mahaiko egutegia, ikasle eta langileentzako 9
lantegi eta esku hartzeko programa, osasun-gaiei buruzko 25 ekintza akademiko
eta beste hainbat eta hainbat ekimen, arreta eta prebentzio zerbitzuetatik. Argibide
gehiagorako, saludable.deusto.es webgunea kontsultatu daiteke, bai eta
2013-2015 memoria ere. Gaur egun, Osasuneko Plan Gidariaren bigarren fasea
diseinatzen ari gara, plan estrategiko berriaren UGEren proiektuaren esparruan.




Deustu zerbitzari:

Jesusen Lagundian, 1995ean, 34. Kongregazio Orokorrean, onartu zen gizonen eta emakumeen arteko harreman desberdintasunak eta botere aldeak misioan aurre egin beharreko bidegabekerieta bat zirela. DU, mundu bidezkoagoa, solidarioagoa eta gizatiaragoa eraikitze lan egiten duen erakundea izaki, erantzukizun berezia du emakume eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea gauzatu dadin.



DU Berdintasun Plana egiten ari da, zeharkako ikuspegiz, Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuneko Proiektu Estrategikoaren barruan. Horretarako, 2014an egindako diagnostiko kuantitatibotik abiatu da, eta zenbait egitura eratu dira berdintasuna sustatzeko. Egitura horiek baliatuko dira DUko emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiteko eta ekintzak bultzatu eta ikusarazteko.



Ikerketaren eremuan, bi ekimen nabarmendu behar dira: batetik, generoaren inguruko diziplinarteko plataforma bat sortu da (www.gender.deusto.es), oso baliagarria arloko ikerketa eta ikertzaileak ezagutzera emateko, nazioarteko aliantzak sendotzeko eta H2020 Europako Programaren deialdietan posizionatzeko; eta, bestetik, Emakume teknologoarentzako Ada Byron Sariaren deialdia, Ingeniaritza Fakultateak sustatua, emakumeek zientzian egiten duten lana ikusarazteko. Gainera, Deustotechek zientzian eta teknologian emakumeen presentzia sustatzen duten proiektuetan parte hartzen du.

emakume eta gizonen arteko berdintasuna

Graduko irakasgai batzuek emakume eta gizonen arteko berdintasuna lantzen dute, besteak beste: "Psikologia eta emakumea"; "Emakumeen aurkako diskriminazioa eta indarkeria"; "Gender Studies". Eta, programa askotan, gaitasun orokor hau lantzen da: "Aniztasun egoeretan, genero berdintasuna, zuzentasuna eta giza eskubideen errespetua zainduko dituzten ikasguneak diseinatzea eta arautzea, herritarren heziketan balioak sustatzeko."

Emakumeen Indarkeriaren aurka Esku Hartzeko Unibertsitate Masterra nabarmendu behar da, 2003-2004tik; azken bi urteotan, lehen eta bigarren postuak bete ditu El Mundoko rankinean, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen laguntza du. Bertan, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko master amaierako lan asko egin dira. Halaber, finantzatutako doktorego-tesien proiektu batzuk dira aipagarri, gehienak Gizarte Laneko eta Soziologiako Sailekoak.

Duela hiru urtetik hona, Simone de Beauvoir Emakumeen Zinema Jaialdiak film laburren hautaketa eskaintzen die ikasleei Zabalkundearen arloan, Deustuk hainbat urte daramatza genero-indarkeriaren aurkako azaroaren 25eko erakunde-kanpainarekin bat egiten; puntu lila bat jartzen du fatxadetan, emakumeen aurkako edonolako desberdintasuneko eta tratu txarreko adierazpenen aurka. Halaber, sentsibilizazio eta informazio jarduerak egiten dira, besteak beste, berdintasunerako foroa eta martxoaren 8aren inguruko zenbait ekintza.

Deustu zerbitzari:

Gizarte Erantzukizunaren Politikaren barruan, eta Jesusen Lagundiko unibertsitatea izanik, DUK ingurune jasangarria eta ingurumena errespetatzen duen elkartearen nahi du. Unibertsitatearen azken plan estrategikoen garapenean argi ageri da erakundeak arlo horretan egindako lana, eta azkenengoan Ingurumenaren aldeko Plan Gidaria egitea aurreikusi da. 2015-2016 ikasturtean ekingo zaio.

Planaren helburua da ingurumen-ikuspegia txertatzea unibertsitateko jardueraren osagai nagusietan: pertsona kritiko eta sortzaileen prestakuntza, aldaketak sortzeko gaitasuna izan dezaten; ikerketan, pertsonen eta naturaren arteko harremana ulertzen laguntzeko eta erakunde, teknologia eta erlazio bide errespetuzkoak eta jasangarriagoak sustatzeko; eta jakintzaren transmisioan, erakundeek eta jendeak ezagutza horiek gizartearen hobetzeko erabil ditzaten. Zehazki, 2014-2015ean ekimen hauek dira aipagarriak:



Argazkia: @my_little_stone

Azpiegiturak hobetzen jarraitzea, energia-eraginkortasuna eta kontsumo jasangarria lortzeko (energia, klimatizazioa, argiztapena...), bai eta aztarna ekologikoari buruzko txostenak egiten eta emaitzak zabaltzen jarraitzea ere.


Ingurumen-jasangarritasunari buruzko I+G+b sustatzea, eremu horretako nazioarteko eta bertoko ikerketa-proiektuen bidez. Ildo horretan, Teknologia jasangarriari buruzko Unibertsitate Globalaren Proiektuan sartu da Deustu (Japoniako Gobernuak sustatua, BC3ren lankidetzarekin), eta Bizkaia 21 Programarekin bat egindako udaletako 21 Agendak eta jasangarritasun planak Aalborg+10eko nazioarteko konpromisoekin bat datozen eta zer ekarpen egin duten ikertzeko proiektuan hartu du parte.

ingurumena eta jasangarritasuna

Jasangarritasunarekin lotutako irakasgai bereziak ematea, besteak beste: Energiaren eta ingurumenaren teknologia, Ingeniaritzan, edo Ingurumenaren Zuzenbidea, Zuzenbidean. Fakultateetako irakasgai askok ingurumen-ikuspegia txertatzen dute beren eduki eta titulazioetan, eta gradu guztietan daude izaera eta misioiko irakasgaiak, ekologiarik eta jasangarritasunari buruzko gaiak jorratzen dituztenak. Nabarmenezkoa da, halaber, Ingurumenaren Kudeaketako Masterra, bai eta jasangarritasunari buruzko gradu amaierako proiektuak eta master amaierako proiektuak ere.

Deusto Campuseko sentsibilizazio eta zabalkundeko ekimenak, besteak beste, Deusto Green, "Ekologia al da krisiaren galtzaile nagusia?" Eztabaida Liga eta transferentziako beste jardunaldi eta ekintza batzuk, esaterako, gizartera hainbat gai eraman dituztenak: erauzte-industriak, hiri adimentsuak, energia iraunkorra edo udal plan jasangarriak.

Beste erakunde batzuekiko sare eta aliantzak indartzea, besteak beste, ACLIMArekin sinatutako hitzarmenarekin jarraitzea, Deusto Gizarte Berrikuntzak Euskadi 2020 Garapen Iraunkorreko Estrategian parte hartzea, 2015ean Bilboko Udalak sustatutako "Karbono gutxiko estrategia baterantz Bilbon 2015" proiektuan parte hartzea edo EMSPI energia-eraginkortasunari buruzko Europako proiektuan parte hartzea Factor CO enpresarekin. Halaber, hitzarmenak sinatu dira ikasleek praktikak egin ditzaten ingurumen eta jasangarritasun kontuetan.



Argazkia: @nazaretrb11



Argazkia: @josurowhe

Deustu zerbitzari:

2014-2015 ikasturtean, DUko inklusio eta irisgarritasunari buruzko diagnostiko bat egin da eta hortik sortu da erakunde mailako lehenengo azterketa. Prozesu horren bidez jaso diren datuekin Inklusio eta Irigarritasun Arloa diseinatuko da, Unibertsitatearen Gizarte-erantzukizuneko Plan Gidariaren barruan.

Laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen programak 76 ikasle artatu zituen, eta Unibertsitatean sartzeko 4 egokitzapen eta banakako 44 egokitzapen egin zituen. 21 ikasle artatu zituen desgaitasunak dituzten ikasleentzako orientazio eta laneratzeko programak eta 406 lan-eskaintza argitaratu. Horrez gain, DeustoAlumni-Enpleguak 2 lan-eskaintza kudeatu zituen: haietariko batean Desgaitasuneko Ziurtagiri Ofiziala eskatzen zen. Datu basean, bestalde, desgaitasunen bat duten 8 pertsona erregistratu ziren. 7 ikaslek eman zuten izena arlo honetako Unibertsitateko Boluntario Taldean; 177k, Bilboko campuseko Elkartasunekoan eta 28k, Donostiako campusekoan. Zeinu-hizkuntza ikasteko ikastaroak eskaini ziren bi campusetan eta 78 pertsonak hartu zuten parte. Beka eta Laguntza Zerbitzuak, bere aldetik, 4.563 beka kudeatu zituen, eta Idazkaritza Orokorrak Eusko Jaurlaritzaren desgaitasuneko 129 hobari izapidetu zituen.

Arlo honetako argitalpenen atalean, aipa ditzagun DUren hauek: Guía de adaptaciones curriculares, Protocolo de actuación: Atención a estudiantes con necesidades específicas de apoyo eta Manifiesto por un Ocio Inclusivo. Proiektuetan ere hartu da parte: Guía de Atención a la Discapacidad en la Universidad 2015 (Fundación Universia), II Estudio Discapacidad y Universidad (Fundación Universia), Guía universitaria para estudiantes con discapacidad (Fundación ONCE), Belaunaldiarte-ko gizarte lortzeko norabidean: nola bultzatu adin guztientzako programak? Gida praktikoa. (Bizkaiko Foru Aldundia) eta Directorio de Universidades con departamento de atención a la diversidad (CLAVE – Atención a la deficiencia auditiva).

inklusioa



Graduko, graduondoko eta doktoregoko prestakuntza eskaintzaren artean, azpimarra ditzagun Gizarte Laneko “Gizartetik baztertzeko eta gizarteratzeko prozesuak” eta “Desgaitasunak eta adineko pertsonak” irakasgaiak; Aisia, kultura eta Komunikazioko doktoregoan, “La inclusión como objeto de estudio o transversal”; Gizarte Inklusioari eta Ezgaitasunari buruzko Unibertsitate Masterra; edo Hezkuntza Premia Bereziei buruzko Unibertsitate Masterra. Gradu amaierako, master amaierako eta doktoregoko tesietako ehun lan baino gehiagotan jorratu da inklusioa.

DUko zenbait ikertalde ere ari da inklusioko ildoak aztertzen: Deustotech e-life, Esku-hartzea: bizi-kalitatea eta gizarte-inklusioa, eta Aisiatzko Ikaskuntzen Institutuko Aisia eta Desgaitasunen Katedra. Azkenak Euskadiko ONCEn 2015eko Elkartasun Saria jaso zuen, desgaitasunak dituzten pertsonen aldeko lanagatik.



Amaitzeko, foro hauetan hartu du parte Deustuko Unibertsitateak: “Foro de educación inclusiva: una universidad abierta a la diversidad” topaketan, Aristos Campus Mundus Nazioarteko Bikaintasun Campusak antolatuta; Desgaitasunak dituzten pertsonentzako Unibertsitate zerbitzuen Sarean (SAPDU-RUNAE); eta Enplegua, Praktikak eta Desgaitasunak Taldean. Eta hitzarmenak sinatu ditu Fundación Universia-rekin, Lantegi Batuak erakundearekin, Uribe-Kosta Elkartea-rekin eta Euskal Herriko Down Syndromearen eta bestelako Adimen Urritasunen Fundazioarekin.

Deustu zerbitzari:

Deusto Alumniko Enplegu atalak unibertsitarioen enplegarritasun beharrei erantzuna ematen ahalegintzen da, kontuan izanik gaur egungo lan merkatuaren egoera eta erakundeek eskatzen dituzten profilak. Estrategia horren barruan, Deustuko Unibertsitateak lankidetzaz hitzarmenak ditu erakunde publikoekin, finantza erakundeekin, korporazioekin, enpresa txiki eta ertainekin, ekonomia sozialeko enpresekin, erakunde sozialekin eta komunikabideekin.

Horretarako, 2014-2015 ikasturtean zehar hainbat programa eta ekintza garatu dira aholkularitza eta bitartekaritza eskaintzeko:

Orientazioaren arloan, tailerrak antolatu dira enpresek lanerako eskatzen dituzten gaitasunak eskuratzeko; Orienta Zaitetz programa sustatu da lan merkatua ezagutzera emateko ezagutza arlo guztietako profesionalen topaketen bidez eta pertsonen hautaketan adituak direnekin; Talentia programa eraman da aurrera Deustuko unibertsitarioak ahalik eta egokien laneratu eta garatzen laguntzeko; Demola berrikuntza programak unibertsitario gazteak eta enpresariak elkartzen ditu, ekintzailtzarako gaitasunak sustatzeko; eta, azkenik, lana bilatzeko orientazio indibiduale-rako ekintzak egin dira. Bitartekaritza arloan, aipagarrienak hauek dira: Enplegu eta Ekintzailtza Foroa: gizarte eragileen eta lehenengo lanaren bila ari direnen arteko topagunea izatea du helburu; DUko Lan Poltsa: gure Unibertsitateko tituludunentzako enplegu eskaintzak kudeatzen ditu; lanean ari ez diren gazteen kontratazioa sustatzeko praktika edo/eta beka profesionalak: Lehen Aukera, Euskadiko Gazte Enplegurako Programa, Global Training eta BBK Professional Internships.

enplegua, gazteen langabezia eta ekintzailtza

Deusto Entrepreneurship Centre-n enpresak martxan jartzeko zerbitzuak eskaintzen dira, hala nola inkubazioa, espazioa, aholkularitza..., bai eta prestakuntza, ikerketa eta ekintzailtza sustatzeko ekintzak. Programa hauek dira aipagarrienak: DeustoSTART: azken mailetakoko ikasleen arteko ekintzaile espiritua indartzeko; DeustoSTART Digital, hiru hilabekoa, Internet sektoreko enpresak bultzatzeko; DeustoPush, gizartea oinarri duten ekimenak bizkortzeko; Yuzz, teknologia oinarri duten ideien lehiaketa; eta Business Angels Eskola, inbertsio teknikak hobetzea duena xede.

Ekintzaile espiritua eta ekintzailtza sustatzeko jarduerak egin dira legegintza esparruan, masterclassak, inbertsio foro bat, Bilbao Bizkaia Meetup-en parte hartu da (Bizkaiko Foru Aldundiak antolatua MITekin eta EAEko hiru unibertsitateekin batera), eta Ingeniaritza Fakultateak ForoTech ekitaldi teknologikoa antolatu du, teknologian oinarritutako hainbat ekimenekin. Amaitzeko, aipatzekoak dira Deustu Ekintzaile Astearen antolaketa eta XI. Enplegu eta Ekintzailtza Fororako proposatutako jarduerak.



Deustu zerbitzari:

Deustuk ekintza asko eramaten ditu aurrera gizarte justiziaren, elkartasunaren eta pobreziaren kontrako borrokaren alde, unibertsitateko fakultate, zentro eta zerbitzuen bidez. Lerro labur hauetan horietako batzuk besterik ez ditugu aipatuko, 2014-2015 ikasturtean egindakoaren erakusgarri.

Graduko irakaskuntzari dagokionez, gai horiek zuzen-zuzenean lantzen dira Gizarte Laneko eta Gizarte Hezkuntzako graduetan, baita Balioei buruzko Giza Hezkuntza moduluko irakasgai batzuetan ere, gradu guztietako bigarren mailan. Modulu horretako irakasgaien artean, ziur aski ekimen berritzaileena Ikasi eta Zerbitzatu aukerako metodologian dago; izan ere, gizarte erakundeetako zuzeneko lana eta esperientzia horren inguruko gogoeta uztartzen ditu.

Graduondoko prestakuntzan, helburu horiei lotutako eskaintza zabalagoa da. Azpimarratzekoak dira gizarteko esku hartzeari lotutako masterrak eta migrazioei eskainitakoak, horien artean, Nazioarteko Ekintza Humanitarioko Masterra eta Nazioarteko Migrazioei eta Gizarte Kohesioari buruzko Masterra.

Ikerkuntzari dagokionez, ekimenak ugari dira fakultate guztietan: migrazioei eta herrialde barneko lekualdatuei buruzko lana, Giza Eskubideen Institutuan; natur baliabideen garapenaren eta ustiapenaren erronka, Etika Aplikatuko Zentroan; parte hartzeko prozesuak, Psikologia eta Hezkuntza Fakultateko "Balioak, Hezkuntza eta Gizarte Inklusioa" ikertaldean; edo enpresen gizarte erantzukizunaren dimentsio politikoa, Deusto Business Schoolen. Adibide batzuk besterik ez dira horiek.

gizarte justiziaren, elkartasunaren eta pobreziaren kontrako borroka



Ikasturte amaieran, 'Gizarte Justiziari eta Inklusioari' buruzko ikerketako diziplinarteko plataforma bat jarri zen abian, unibertsitateko Nazioarteko Ikerketa Proiektuen Bulegoaren gidaritzapean. Plataforma horren helburua da askotariko ikertzaileen ahalegina egituratzea, gai horien inguruko irismen handiagoko proiektuak bideratzeko.

Erakunde funtzionamenduaren ikuspegitik, Deustuko Unibertsitateak beka politika du, ekonomia ahalmen txikiagoko pertsonei gradu ikasketak egitea errazteko.

Deustu zerbitzari:

2014-2015 ikasturtean bi ikerketa proiektu garrantzitsu egin dira giza eskubideen alorrean: bata, Europako FRAME proiektuaren barruan: Giza eskubideak sustatzen Europako barne eta kanpo politiketan; bestea, Espainiako unibertsitateetako giza eskubideen institutuekin elkarlanean: Huri-Age Eskubideen Garaia. Argitalpenei dagokienez, Deustuko Unibertsitatean Ekintza Humanitarioaren eta Giza Eskubideen Urtekaria 2015 argitaratu da, bai eta Giza Eskubideei buruzko Deusto Koadernoak argitalpenaren bost zenbaki berri (77-81). Kanpoko argialetxeetan, berriz: Tejedores de mapas: una familia kichwa otavaleña en la migración transoceánica; United in Diversity: On Cultural Diversity, Democracy and Human Rights; Diversidad religiosa, integración social y acomodados; Cuidados en crisis: Mujeres migrantes hacia España y Chile; eta The Humanitarian Challenge: 20 Years of the European Network on Humanitarian Action (NOHA).

Prestakuntzaren arloan, bestalde, ekintza hauek egin dira: Laguntza Humanitarioko babesari buruzko udako ikastaroa; bi ikasketa jarri martxan: Laguntza Humanitarioko Aditua eta Laguntza Humanitarioko Babeseko Aditua; adituen mahai-inguru bat Espainiako etorkinen elkartegintzaz eta informazio-gizarteaz, “Gizarte eta kultur erronkak eta giza eskubideak aldatzen ari den munduan” ikertaldeko migrazio arloak koordinaturik; Doktoregoko programa bat: Giza Eskubideak: erronka etikoak, sozialak eta politikoak; eta hiru master: Nazioarteko Ekintza Humanitarioko Masterra; Giza Eskubideei eta Demokratizazioari buruzko Masterra; eta Nazioarteko Migrazioei eta Gizarte Kohesioari buruzko Masterra. Bestalde, ohi bezala, Latinoamerikako Herrialde Indigenentzako Giza Eskubideetako Prestakuntza Programa burutu da, Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen aldeko Goi-komisionatuaren Bulegoarekin lankidetzan eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatuta. 70 ikaslelik gora izan dira giza programa horietan 2014-2015 ikasturtean. Gainera, master bat prestatu da: Giza Eskubideen Politika eta Jardunbideei buruzko Masterra, 2015-2016an martxan jartzeko.

giza eskubideak

Horrez gain, mintegiak eta hitzaldiak antolatu dira hainbat gai lantzeko: egoera ahulean dauden taldeak; Mexikoko migrazioa eta "patrona" deritzon figuraren rola; bakearen erronkak Kolonbian; erauzketa-industriak, gatazkak eta garapena Latinoamerikan; erlijio eta kultura aniztasuna Kanadan; kideetasun eta identitateari buruzko Europako politikak. Horiez gain, beste ekimen mota batzuk antolatu dira giza eskubideen arloan egindako lanari zabalkundea emateko, hala nola liburuen aurkezpenak (Tejedores de mapas), argazki erakusketa bat (Con la cámara a cuestas), Ondare Bizia dokumentala eman eta Eusko Jaurlaritzak sustatutako Giza Eskubideen Defendatzaileen Programako partaideekin bildu.

Nazioarteko eta Kulturarteko Ikasketak programako bost doktoregaik defendatu dute doktore tesia. Hitzarmenak mantendu dira erakunde hauekin: Eusko Jaurlaritza-zako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia; Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza; Donostia Kulturaren Hiriburua; eta bertoko, estatuko eta nazioarteko gobernu kanpoko erakundeak. Azkenekiko hitzarmenak ikasleek praktikak egitera eta sentiberatzeko ekitaldiak antolatuz bideratuta egon dira. Azkenik, Europan giza eskubideen arloan lanean ari diren sareekin lankidetzan jarraitu da.



Deustu zerbitzari:

2014-2015 ikasturtean lau proiektu nabarmendu behar ditugu: “INTEGRIM-Nazioarteko integrazioa eta migrazioa” europar proiektua; etorkinen elkarteek informazio-gizartearen integratu eta parte hartzeko proiektua; “Ondare Bizia” proiektua, euskaldunen erbesteratze, migratze eta itzultzeari buruzkoa; eta “Bizkaiko Emigrazioaren Interpretazio Zentro Birtuala: Bizkaiko emigrazioaren eta itzuleraren identitatea, memoria eta kultura” proiektua.

Giza Eskubideei buruzko Deusto Koadernoak argitalpenaren bi ale eskaini zaizkio migrazioari: 77. zenbakia: Aniztasunaren erronka laneratze-arloan diharduten euskal enpresentzat. Etorkinen eta emakumeen enplegua, eta 81. zenbakia: Migrazioa ala derrigorrezko lekualdatzea? Biztanleriaren mugimenduen arrazoiak eztabaidagai. Kanpoko argitaletxeetan bi argitalpen hauek aipatu behar dira: Tejedores de mapas: una familia kichwa otavaleña en la migración transoceánica y Cuidados en crisis: Mujeres migrantes hacia España y Chile.

Bestalde, prestakuntza saioak eskaini dira profesional eta ikasleentzat. Besteak beste, adituen mahai-inguru bat egin da Espainiako etorkinen elkartegintzaz eta informazio-gizarteaz. “Gizarte eta kultur erronkak eta giza eskubideak aldatzen ari den munduan” ikertaldeko migrazio arloak koordinatu du.

Graduan eta graduondoa, Nazioarteko Migrazioei eta Gizarte Kohesioari buruzko Masterra eskaini da. MISOCO Europako unibertsitateen partzuergoak ematen du master hori eta Deustu partzuergoko kidea da. Deustuko egonaldian, ikasleek aniztasunaren kudeaketa eta migrazioen arloko ikerketak lantzen dituzte eskolan.

Horiez gain, mintegiak antolatu dira hainbat gai jorratzeko: Mexikoko migrazioa eta “patrona” deritzon figuraren rola, eta kidesun eta identitate gaiei buruzko Europako politikak. Gainera, beste ekimen mota batzuk antolatu dira migrazioen arloan egindako lanari zabalkundea emateko, hala nola liburuen aurkezpenak (Tejedores de mapas), argazki erakusketa bat (Con la cámara auestas), Ondare Bizia dokumentala eman eta CEAR gobernuz kanpoko erakundeak Melillako hegoaldeko mugako emakumeen migrazioaz egindako txostenean parte hartu.

migrazioak

Nazioarteko eta Kulturarteko Ikasketak programako bi doktoregaik defendatu dute migrazioari buruzko doktore tesia: Bruna Diniz Leal Nunes doktoreak, Nuevas tecnologías de la comunicación a servicio de la inclusión social y jóvenes migrantes sin referente familiar; eta Manuela Gabriel doktoreak, Asociacionismo de mujeres inmigrantes: el caso de la Comunidad Autónoma Vasca.

Mantendu dira migrazioen arloan lan egiten duten sare europarrekiko lankidetzak hitzarmenak; IMISCOE eta MISOCO sareekin, kasurako. Bestalde, hitzarmenak sinatu dira bertoko, estatuko eta nazioarteko gobernuz kanpoko erakundeekin, ikasleek praktikak egin ditzaten.



Argazkia: @hautatzen

Deustu zerbitzari:

Irakaskuntzaren arloan, Deustuk bide oparoa egin du profesional trebeak prestatzen nazioarteko lankidetzaren eta ekintza humanitarioaren arloetan. Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak antolatutako hiru masterrak aipatu behar ditugu arlo horretan: Nazioarteko Ekintza Humanitarioko Masterra, NOHA sarekoa; Giza Eskubideei eta Demokratizazioari buruzko Masterra; eta Nazioarteko Migrazioei eta Gizarte Kohesioari buruzko Masterra. Gainera, Giza Eskubideen Institutuak Latinoamerikako Herrialde Indigenentzako Giza Eskubideetako Prestakuntzako programa antolatzen du urtero. Programa hori Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen aldeko Goi-komisionatuaren Bulegoarekin lankidetzan egiten da eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatzen du.

Bestalde, zenbait topaketa akademiko egin dira nazioarteko adituekin. Besteak beste, Mick Moore irakasleak fiskalitateari eta garapenari buruzko mintegi bat gidatu du, eta Anthony Bebbington irakasleak erauzketa-industriei, gatazkei eta garapenari buruzko beste mintegi bat. Biak ere Etika Aplikatuko Zentroak eta Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak eratu dituzte elkarlanean eta bietan hartu dute parte Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailak, gobernu kanpoko erakundeek eta zenbait unibertsitateko ikertzaileek.

2014-2015 ikasturtean, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak Norma humanitaria Esencial liburua aurkeztu du eta parte hartu du Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzak sustatutako programa batean: giza eskubideen defendatzaileen programa.

Bestalde, Deusto Campusek hainbat erakusketa eta hitzaldi antolatu ditu gobernu kanpoko erakundeekin elkarlanean (Afrika behar-beharrezko partzuergoa, ALBOAN, Munduko Medikuek eta Amnistia Internazionala); garapenerako lankidetzan jarduteko boluntariotza bultzatu du unibertsitateko ikasleen artean, hezkuntzaren arloan gizarte eraldatzen laguntzeko asmoz, bi eratara: 5 laguneko taldeetan lan eginez ikasturtean zehar, eta nazioarteko auzolandegietan parte hartuz (Txile, Peru, Brasil, Kenia eta Tanzania). Guztira, DUko 25 pertsonak hartu dute parte ekimen horietan.

nazioarteko lankidetzaren eta laguntza humanitarioa



DUK ALBOAN GKEarekin duen lankidetzaren estuaren ondorioz, fakultate eta zentroetako hainbat lagunek "Comparte" izeneko proiektuan hartu dute parte. "Comparte" elkarlanean ikasteko komunitate bat da. Jesusen Lagundiak erakunde sozialak ditu Latinoamerikan landa eremuetako ekoizleei laguntzeko, eta "Comparte" komunitateko kideek laguntza prozesu horiek aztertu eta ikasi egiten dute. Deustuko Unibertsitateko Deusto Business Schooleko pertsonak hartu dute parte ekimenean aholkua emanez eta ikasleen parte-hartzea prestatuz, gradu eta master amaierako lanen bidez.

Gainera, "Comparte" ekimena garatzen laguntzeko, DUK, CEAREN bitartez, ALBOANeko pertsona bati beka eman dio doktore tesia egin dezan gaitasunen ikuspegiaren erabilerrari buruz Perun eta Kolonbian "Comparte"ko kide diren bi erakundetan.

Deustu zerbitzari:

Deustuko Unibertsitateak irakaskuntzaren bidez egiten dio Etikaren esparruari ekarpenik handienetako bat. Izan ere, unibertsitateko graduako titulazio guztietan, 'Gizarte eta Lanbideko Etika' irakasgaia eskaintzen da, 6 ECTSkoa. 2014-2015 ikasturtean, irakasgai hori 26 titulaziotako ikasleek egin zuten, 30 taldetan banatuta (20 talde gaztelaniaz, 6 ingelesez eta 4 euskaraz). 26 irakaslek 180 ECTS kreditu eskaini zizkieten guztira 1.350 ikasleri. Ikasturte honetan, etikako irakasle horien prestakuntza sistematikoari ere heldu zaio, etorkizunari begira, gai horretako irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko. Deustuko Unibertsitatean, etikaren irakaskuntza UNIJESeko gainerako unibertsitate zentroekin koordinatuta ematen da.

Etika Aplikatuko Zentroak Master ofizial bat ere eskaintzen du, "Gizarte eratzeko etika". Azken urteetan, master horrek, batez beste, 15-20 ikasle izan ditu. 2014-2015 ikasturtean, masterraren ikasketa plana berrikusi eta eguneratu zen.

DeustoBiderekin elkarlanean, Etika Aplikatuko Zentroak "Ikuspegi etikoak: gaur egungo gizarteak kontuan hartuta egindako hausnarketak" ikastaro monografikoa eskaini zuen, ikasturte osoan zehar, zortzi modulutan egituratuta.

Jakintzaren transferentziari dagokionez, 2014-2015 ikasturtean zehar hainbat prestakuntza saio antolatu ziren BBVAko zuzendariekin, enpresaren erronka etikoak aztertzeko, Deustuko Unibertsitateak erakunde horrekin duen lankidetzaren hitzarmenaren barruan. Esperientzia horretatik abiatuta, Unibertsitatean lantalde bat osatu zen, 2015-2016 ikasturtean zuzendarientzako prestakuntzako mintegi bat abian jartzeko.

etika

Horretaz gainera, "Ética y Finanzas" liburuaren aurkezpena antolatu zen (egileetako bat Fernando Gomez Bezares DBSko irakaslea da); Corrupción: el organismo nocivo dokumentalari buruzko bideoforum bat egin zen; eta Etika Aplikatuko Zentroko irakasleek eta ikertzaileek hitzaldi eta mahai inguru askotan parte hartu zuten, bakeari eta adiskidetzeari buruz eta politika, gizarte eta ekonomiako beste hainbat gaiari buruz gogoeta etikoa eskainiz.

Ikerketari dagokionez, Etika Aplikatuko Zentroaren lana lehentasunezko bi ildoren inguruan egituratzen da: (I) Gatazka eta Bake Kulturak, eta (II) Garapena eta Gizarte Aldaketa. 2014-2015 ikasturtean, 20 artikulua eta liburu kapitulu baino gehiago argitaratu ziren, bi ikerrildo horietako lanekin.



Deustu zerbitzari:

2014-2015 ikasturtean, Gerontologiako Unibertsitate Masterraren seigarren edizioa jarri da martxan eta adineko pertsonen arloan diharduten 25 erakundetako irakasle eta profesionalek hartu dute parte. Unibertsitateko ikasleek graduak zenbait irakasgaitan ere jasotzen dute adineko pertsonen eta zahartzearen gaineko prestakuntza ("Hirugarren adinean esku hartzeko programak" eta "Esku-hartze psikologikoa desgaitasun eta mendekotasun egoeretan") eta masterrak prestakuntza hori osatzeko aukera ematen die interesdunei.

Ikerketaren arloan, DUko Ageing Research ikertaldeak "Pertsona nagusien osasuna eta bizi-kalitatea" ikerriltoa lantzen jarraitu du. 2014-2015 ikasturtean, hiru proiektutara bideratu dira ahaleginak nagusiki, gai hauek jorratzeko: adineko pertsonen parte-hartzea gizartean, jarduera fisikoarekiko atxikidura, eta mendeko pertsona nagusiak zaintzen dituzten senideen gainkarga neurtzeko tresna berri baten egokitzapena.

Ildo horretan, BizkaiLabeko proiektu bat burutu da: "Zahartze aktiboa: parte hartzea eta desgaitasuna eta mendekotasuna prebenitzeko mekanismoak". Ikerlanean zenbait erakundek hartu dute parte, Durangoko Udalak besteak beste, eta emaitzetako bat izan da esku-liburu bat egitea Osasunaren Mundu Erakundearen "Adineko pertsonentzako hiri atsegina" proiektua aurrera eramateko. Gainera, ikerketaren emaitzak Espainiako Geriatria eta Gerontologiako Elkartearen 57. Biltzarrean aurkeztu dira.

Aipatu bezala, jorratutako beste langaietako bat izan da ohitura osasungarriak garatzea eta jarduera fisikoa egitera ohitzea. Arlo horretan Mungiako jubilatuen elkartearekin eta Portugaleteko Aspaldiko fundazioarekin egin da lan. Zentro horietan egindako ikerketetan oinarrituta, ikerrasmo zabalago bat jarri da martxan DUk Osakidetzarekin duen lankidetzak hitzarmenaren barruan.

zahartzea eta adineko pertsonak



Bestalde, 2014-2015 ikasturtean, zahartzeari buruzko diziplinarteko plataforma sendotu da. Deustuko Unibertsitateko zenbait ikertalde ari dira nazioarteko proiektuetan parte hartzen eta plataforma horrek denen ahalegina batu eta Unibertsitatea ordezkatzeko du Adinerako inguru atseginei buruzko Europako Sarean (AFE-INNOVNET, AGE-Platform Europe).

Ohi bezala, Deustuk harremanak izan ditu adineko pertsonen alorrean lanean ari diren agente eta erakundeekin, besteak beste, Bizkaiko nagusien elkarten federazioarekin eta Geriatria eta Gerontologiako Euskal Elkargoarekin (Zahartza-roa). Azkenak zahartze aktiboari buruzko lantalde batean parte hartu du.

Unibertsitatearen apustuetako bat da adin guztietarako unibertsitatea izatea eta, ildo horretan, 2014-2015 ikasturtean, DeustoBide ekimenak 84 ikastaro antolatu ditu adin guztietako pertsonen zuzenduak. Ikastaro horiek 840 pertsona bildu dituzte kulturaren, artearen, psikologiaren eta zuzenbidearen inguruan.

Deustu zerbitzari:

Jakinik familia dela ingururik garrantzitsuena osasuna sustatzeko eta gaixotasunak prebenitzeko eta sendatzeko, ekarpena egin nahi da familiako kideengan nolako mekanismoek sortzen dituzten zailtasunak ulertzeko, eta ebaluatzeko tresnak eta esku hartzeko programak sortzeko. 2014-2015 ikasturtean lau lan ildo jorratu dira.

Lehenengo ildoaren helburua izan da familia-egoera zailetan zer arrisku faktore eta babes faktore dauden aztertzea. Ildo horren barruan, hainbat proiektu aipatu behar dira: “Aita eta ama dibortziatei zuzendutako esku-hartze programa baten eraginkortasuna”, MCIrena; “Adopzioari buruzko komunikazioaren irekiera Espainian”, Aristos Campus Mundus sarekoa; “Haurren eta zaintzaileen arteko lotura sendotzera bideratutako esku-hartze baten diseinua, balioespina eta ebaluazioa”, Bizkailabe-koa; “Diseño, valoración y evaluación de una intervención orientado a fortalecer el vínculo entre niño@s y cuidadores/as”.

“Bakardade sentimentua adinekoengan eta sentimentu horrek kausa-atribuzioarekin eta aurre egitearekin duen lotura”, Bizkaiko Elizbarrutiko Caritasekin lankidetzan burutua; eta doktoregoko zenbait proiektu, hala nola “Familia-egoera zailek seme-alaben moldapenean duten eragina: neba-arreben arteko harremanen garrantzia”, “Gurasoen arteko gatazken bizipen kognitibo eta emozionala eta seme-alaba nerabeen ongizatean duten eragina. Emozioen erregulazioaren eta umorearen bitartekari rola”, “Ugalketa laguntzeko tekniken bidez haurdun geratutako emakumeen jaio aurreko lotura” eta “Hainbat familiaren arteko terapia, arrisku psikosozial handiak dauden egoeretan. Prozesua eta emaitza”

Bigarren lan ildoaren helburua izan da ebaluazio tresnak sortu eta baliozkotzea. Ildo horren barruan, tresnak, autotxostenak eta behaketak kodetzeko sistemak jarri dira zientzia elkartearen eskura, 10 baino gehiago.

familia

Hirugarren lan ildoak esku hartzeari dagokio eta, bertan, bi proiektu aipatu behar dira bereziki: batetik, DUko eta Coruñaiko Unibertsitateko unitate klinikoetan familiekin lan egiteko garatutakoak eta, bestetik, Deusto Psychen dibortzio prozesuak igaro dituzten familietan esku hartzeko ireki den lan ildoak.

Laugarren ildoaren helburua da zabalkundea egin eta prestakuntza eskaintzea eta, horren barruan, Deusto Family Psych-ek AEI+DTF Elkartearen IX. Biltzarra zuzendu eta hartu zuen ekainean “Gurasotasuna gaztazka eta dibortzio egoeretan: eragin emozionala seme-alabengan” izenburupean, hurrengo 4 urteetarako elkartearen presidentzia hartzearekin batera. 8 argitalpen egin dira (2 ISI) eta 10 hitzaldi eman dira.

Azkenik, Psikoterapia Sistemiko eta Erlazionaleko Unibertsitate Masterra diseinatu da. 2016-2017 ikasturtean hasiko da ematen eta, irakaskuntza eta ikerketa uztarturik, lan arlo hori finkatzea da asmoa.



